



257. zenbakia

• Abendua 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Azeri txikia
Joxe Jabier Elizalde

Bazen behin
azeri txiki bat
oilategiaren inguruan
harat-honat
ibiltzen zena.
Honat eta harat,
oiloak urduri,
oilarra ere bai,
oilandak oihuka
ai, ai, ai!

Azeriak oilarrari:
“Lan bila nabil;
oilategia zainduko nuke
egunez eta gauzez ere bai.
Izan zaitezte lasai”.
Alajainkoa!
Talan, tolon, tilin,
oilarra maitemindu
azeriarekin.
Ezkontzako otordua
zizareak tortilarekin.



Hautatu



3 hedabide

komunikazioa

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Urritzako Kontzejua, Errege Magoak, Ultzamaldeko Ezpela Euskara Taldea, Cederna Garalur, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Txondorra Berriatuan.
Argazkiaren egilea: Txetxu Collado.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 9an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Euskararen egoera*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Analisia. *Makroetxaldeak eta Caparrosoko epaia*

16

Salaketa. *Urritzako kontzejuaren gutuna*

17

Gutuna. *Errege magoak*

20

Ekimenak. *Metereologia Suarben*



22

Aspaldiko kontuak. *Esan omen zion behin (7)*

26

Berezia. *Euskaldunok larri gabiltza*

28

Kirola. *Beñat Senosiain aizkolaria*

30

Ekimenak. *Cederna Garalur*

32

Zer irakurri. *Lacha*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Urria*

Euskara, osasunez larri

Azken hamarkadetan euskara ezagutza mailaren goranzko joera azpimarratu da eta horrek egoeraren distorsioa ekarri du, gaixoaren diagnostiko okerra, askok euskara osatzen ari zela sinistu baitute. Baina, begiak erabilera mailan jarri behar ditugu eta datuak ez dira onak. Euskal hiztunen %12-14k besterik ez du erabiltzen euskara. Zergatik ematen da ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala hori? Horri erantzuten eta egoera iraultzeko lanean diardu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA)



“ Mikel Orbañanos Iribar, UEMAko euskara teknikaria: Euskara osasunez larri dago eta guztion lana ezinbestekoa da ”

Mikel Orbañanos Iribar, Jauntsaratsen ▲

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea da UEMA eta Basaburua kidea da 2008tik. Mankomunitatean dagoen eskualdeko udalerrri bakarra da. Kide bakoitzak urtero plangintza bat edo ekintza plan bat adosten du. Aurten, gainera, AROA izeneko plan estrategikoa abiatu dute. Horren bidez, hamar urteko plan bat egiten da, euskararen erabileran eragiteko asmoz eta herritarren iritziak kontuan hartuta. Horrela, parte hartze prozesu honetan, inkestak zabaldu dira eta hainbat saio ere egiten dira.

Basaburuko lehenengo saioan Mikel Orbañanos Iribar UEMAko euskara teknikaria izan zen eta berarekin

euskararen egoeraz hausnartzeko aprobe txatu dugu. Titularra argia da: “Gauzak garbi esanda, euskara osasunez larri dago. Guztion lana ezinbestekoa da”.

Erabilerak ez du gora egiten

Datuak garbiak dira. Azken hiru hamarkadetan euskararen ezagutzak gora egin du, geroz eta gehiagok ikasi dute euskaraz. Erabilera, ordea, %12 eta %14 artean geratu da, ez du gora egiten; eta, okerrago, udalerrri euskaldunetan eta arnasmuneetan behera egin du. (Herritarren %70 euskalduna denean esanen dugu udalerrri bat euskalduna

dela; eta, erabilera %60tik gora denean, arnasmune).

Hori zergatik gertatzen da? UEMAko teknikari eta ikerlaria den eta Euskal Herriko Unibertsitatean doktoretza osatu zuen Iñaki lurrebaso Biterik eman du erantzuna: hizkuntza gaitasuna edo erraztasuna da faktore nagusia. Eta hor dugu arazo nagusia. Euskaldunen gehiengoak erdaraz hobeki moldatzen da, hau da, errazago egiten du erdaraz, euskaraz baino. Hemen ere, datuak horrela adierazten dute: %83a da erdaraz errazago aritzen dena; eta, berriz, %8ak bakarrik egiten du euskaraz errazago. Mikel Orbañanos: “Azken batean haserretzen zarenean beti

“ Euskaldunen %83 errazago aritzen da erdaraz ”

joko duzu errezenean moldatzen zaren hizkuntzara; edo, txiste bat kontatzen baduzu eta aurrekoari barre eragin nahi badiozu beti joko duzu errazen moldatzen zaren hizkuntzara. Erraztasuna determinantea da hizkuntza bat erabiltzeko garaian, horregatik hitzun gaituak sortu behar ditugu. Horretarako aukerak eman behar dira, erraztasunetik etorriko baita erabilera, hori da erronkarik handiena”.


Jabetu al gara?

Egoera iraui nahi badugu, lehenengo pausua errealistak izan eta larritasunaz jabetzea da. Galdetuta, Orbañanos euskara teknikariak uste du ez garela jabetu: “Esango nuke euskaldun gehienak ez gaudela jabetuak. Euskara, garbi esan behar dugu, hizkuntza gutxitu eta zapaldua da; eta egoeraz ez gara ohartzen eta ez gaude ahaldunduta. Horren guztiaren atzean asimilazioa dago eta horren ondorioa da bizi dugun gaur egungo egoera. Datuetara joanda ikusten dugu Euskal Herriko herritarren %30a dela euskalduna eta azken urteetan beti azaldu izan digute ezagutzaren bilakaera beti gora joan dela. Baina gero erabilera ikusi behar dugu. Soziolinguistikako klusterrak bost urtero ikerketa egiten du eta azkeneko hamarkadetan joera berdintsuan dago: %12-14 artean”.

Beste faktore batzuk ere badira, adibidez, lurralde nagusitasuna. “Euskara zer eremutan den nagusi. Euskara, hizkuntza gutxitua eta

3. EUSKARAREN EGOERA BASABURUAN

EZAGUTZA



Basaburuko ezagutza eta erabilera datuak ▲

Basaburua, Euskal Herriaren islada

- Basaburuan 1991tik 2021era eza-gutzak behera egin du: %87tik %72ra jaitsi da.
- 1991n euskara ama hizkuntza zuen herritarren %90ak eta 2001ean, %71k.
- 1991n Basaburuko etxeen %67an erabiltzen zen euskara lehen hizkuntza gisa eta 2001ean, %59an.

Hau ez da Basaburuan bakarrik gertatzen, herri euskaldunen eta arnasmuneen joera bera da.

UEMATik Nafarroako Gobernuari deialdi bat egiten diote, mesedez erabileraren datuak jaso dezatela. Ikusi duzuen bezala, ezagutzarenak bakarrik eguneratzen dira, bost urtean behin (azkenekoak 2021ekoak dira). Baina, erabilerarenak ez dira eguneratu 2001. urtetik. Hau da, azken 25 urteetako daturik ez dugu, hor hutsune izugarria dago.

zapaldua den heinean, zer eremutan den hizkuntza hegemoniko esan nahi du. Bada, euskal herritarren %90, hau da, hamarretik bederatzi, erdara nagusi den eremuetan bizi da, izan gaztelania edo frantsesa. Eta %5 baino gutxiago bizi da eremu euskaldunean. Hau da, euskara nagusi den eremu batean. Ondorioztu dezakegu Euskal Herrian, batez beste, erdaldundu egiten dela, dinamika guztiak, korronteak erdalduntzera garamatza”.

Gure indargunea: atxikimendua

Egoera kezkatzekoa da baina bada berri onik ere. Jarrera eta atxikimendua dira gure indargunea, Iñaki Lurrebaso ikerlariaren ustez. Horrela azaldu digu Mikel Orbañanosek: “Dagoen erraztasun eskaserako, kalean asko hitz egiten da euskaraz. Esan badugu %12-%14 artean kokatzen dela kaleko erabilera eta %8ak bakarrik duela erraztasun handiagoa euskaraz, horrek esan nahi du %8 horrez gain, %4 edo %6 gehiagok euskaraz hitz egiteko hautua egiten duela, erdaraz hobeki mol-



Gorritz eremu euskaldunenak eta berde argiz edo txuriz erdaldunenak

datzen den kopuru horretatik". Hau da, erdaraz hobeki moldatzen den talde batek euskaraz hitz egiteko hautua egiten duela, "Horren atzean zer dago? Jarrera eta atxikimendua, lurrebasok azaltzen duenez".

Atxikimendu horrekin ere lotzen da hainbat gurasoen hautua ere. Orbañanos UEMAKo teknikariak azaldu digunez, etxeko erabilerak ere behera egin du, esate baterako, aldaketa soziologikoak gertatu direlako, gurasoen tipologian, adibidez, lehen ohikoena bi gurasoak euskaldunak ziren tokietan ere gaur euskaldun batek eta erdaldun batek osatutako bikoteak zabaldu direlako: "Eta bikote mistoetan normalean erdara nagusitzen da. Hala ere, gu-

“ **Hiztun gaituak sortu behar ditugu erraztasunetik etorriko baita erabilera** ”

Zer egin dezakegu?

Gauzak horrela, gainontzeko udalerri euskaldunetan bezala, Basaburuan ere eragin nahi du UEMAK eta horretarako osatu nahi dute aipatutako hamar urteetako plan estrategikoa. Hura osatzeko, inkesta bat zabaldu zen eta 30 lagunek erantzun zuten. Erdia baino gehiagok ongi jabetzen da euskaraz behera egin duela eza gutzan eta erabileran. Eta, eragin beharreko eremuengatik ere galdetu zitzaion: "Haur eta nerabeen hizkuntza ohituretan bereziki eragin behar dela esaten dute. Hori eremu asko ikutzen dituen adin tarte bat da eta, beraz, etxeko transmisioan, ikastetxean, aisialdian, euskararekiko sentsibilizazioan eragin beharko da".


Horiek izan ziren identifikatu ziren eremuak eta bigarren saio bat egiten da bai Udalak, UEMAK, Mankomunitateak eta bai eragile edo norbanakoek zer egin dezaketen zehazteko: "Ditugun baliabideak, ez ditugunak eta beharko genituzkeenak ere pentsatu behar dugu. Eta zer dagoen gure esku, gogoratu behar baitugu hemen kanpo faktoreek eragin nabarmena dutela. Tipulan bezala, arazoak azal asko ditu, baina bakoitzak bere pisua du eta errelatibizatu behar dugu. Hala ere, norberak dituen baliabideak ongi aprobetxatu, zukutu eta ahal dugun guztia egin behar dugu, gure eskuetan dagoen guztia".

UEMAren ildo nagusiak

UEMA dozena bat udalerri sortu zuten 1991n, Aizarnazabal (Gipuzkoa). Tartean, bi udalerri nafar zeuden: Arbizu eta Urdiain. Gaur egun, Hego Euskal Herriko 118 udalerri osatzen dute, 22 Nafarroa Garaikoak. Eskualdean, Basaburua da bakarra, aipatu bezala.

Sortu zenean, Udal Administrazioa euskalduntzeko eta ahalduztzeko helburuarekin sortu zen. Udal langileek euskaraz bazekitelako, baina erdaraz lan egitera behartuta zeuden. Udaletako barne komunikazioa, lan funtzionamendua, sortze lana eta herritarrekin dituzten harremanak

euskalduntzea izan zen lehenengo helburua. "Baina, administrazioa euskalduntzen zen ahala, hamarkadaz hamarkada, kaleak erdaldundu zirela ikusi zen eta 2.000. hamarkadatik aurrera udaletik kanpo, eremu ez informalak, kalea, erdaldundu ziren. Horri heldu zion UEMAK". Gaur, hezkuntzan, arlo sozio-ekonomikoan (herriko dendetan eta ostatuetan, adibidez) eta aisialdian ere euskalduntzeko baliabideak eskaintzea eta egitasmoak sortzea du helburu mankomunitateak.





Hegan nahiz argindar zutoinetan ikus dezakegun bizilagun fidela

Miru gorria da hilabete honetako ingurumen kolaborazioko protagonista. Iosu Alfaro biologo etsaindarrak harrapakari honen ingurukoak ekarri dizkigu, gure eskualdean ohikoa baita hegazti hau ikustea

Milvus milvus izen zientifikoa du miru gorriak, eta ez da gure zonaldean ikus dezakegun miru mota bakarra. "Bi miru espezie ditugu gurean, miru gorria eta beltza", azaldu du etsaindarrak. Baina, miru beltza martxotik irailera arte egoten da gurean, eta gorria, berriz, urte osoan egon daiteke. "Miru gorriaren bi populazio ditugu: urte osoa hemen pasatzen dutenak batetik, kabia hemen dutenak eta kumeak ere bertan izaten dituztenak, eta migratzean gure eskualdetik pasatzen direnak, bestetik", azaldu du. Bigarren horiek, Europa osotik etorritakoak izan daitezke, hegazti bidaiariak. "Negu partean migratzen dute, eta horregatik, irudi lezake neguan miru gorri gehiago daudela", gehitu du biologoak.

Kometa gorria

Ingelesezt 'red kite' gisa ezagutzen da miru gorria, 'kometa gorria' litzateke itzulpena. "Izan ere, miru gorriaren buztanak lema baten funtzioa du, buztana mugituz menperatzen du hegazti honek bere norabidea". V formako buztana izaten dute, gezi baten antzekoa. Tamainari dagokionez, 60 zentimetro inguruko garaiera izan dezakete miru gorriak, eta hegala zabalduta, 170 zentimetroko zabalera har dezake. "Zapelatzaren antza izan dezakete miruek, baina txikiagoak izaten dira zapelatzak, eta forma biribilagoa izaten dute", adierazi du.

Mehatxatutako espezieen artean



dago miru gorria, izan ere, azken hamarkadetan beheranzko joera izaten ari dira miru populazioak. Zergatik? Honela azaldu da etsaindarrak: "30 urte bizitzera iritsi daitezke miru gorriak, baina horretarako, elikadura egokia behar dute, baso lasaiak eta landa eremu dibertsoa", dio. Biodibertsitate handiko larreak behar dituzte, abereez gain karraskariak, intsektuak, zizareak eta bestelako animaliak ere badituztenak. Eta, nekazaritzan eta abeltzaintzan azken hamarkadetan gertatu den industrializazioarekin eta intentsifikazioarekin, inguru horiek desagertzen ari dira, miru gorria kaltetuz. "Denetik jaten dute miruek: lursaguak, zizareak, sarraskiak edo 'karroña', matxinsaltoak eta antzeko intsektuak...". Pozoindutako paisaiek kalte handiak eragiten dituzte beste animalia es-

peziet batzuetan ere, bada, miruen kasuan ere bai.

Gure eskualdea, migrazio korridore

Aipatu bezala, gure eskualdea bizitoki finko duten miru gorriez gain, badira zonalde honetatik negu partean soilik pasatzen direnak ere. Izan ere, Pirinoen inguruko eskualde hauek hegazti askoren migrazio korridore dira. "Horregatik, gure zonalde hau oso oso garrantzitsua da espezie horien kontserbaziorako", gehitu du biologoak. Eta, ez dezagun aiantzi: guretzat ere garrantzitsua da miru gorriak egotea. "Esan dugu karraskariak jaten dituztela, baita hildako hegaztiak... gure uztetan kalteak ekiditeko eta ekosistema orekatuak izateko ezinbestekoak dira, beste animalia asko bezalaxe", amaitu du.

Albaola eta Orgiko basoa, azaroko irteerak

Pasaiko Albaola Itsas Kultur Faktorian izan gara azaroan Denok Bat jubilatuen elkarteko kideak. Museoaz gain, bazkari ederra egin genuen Tolosan. Hurbilago, hilabete honetan Ultzamako Orgi oihanean ere izan gara. Eta Leurtzara ere egin dugu mendi irteera!

Azaroko txangoa Pasaia izan genuen, Albaola Itsas Kultur Faktoria ikustera, hain zuzen.

Pasai San Pedron (Gipuzkoa) kokatua dago museo. Tailerra eta ontziola uztartzen dituen gun berezia da, euskal itsas ondarea

berreskuratu eta zabaltzen duena. Museo tradizional bat baino gehiago, itsas faktoria aktibo gisa aurkezten da, historiak bizia hartzen duen teknika eta erreminta tradizionalak erabiltzen baitituzte bertan, ontzi historikoak jendaurrean eraikiz edo zaharberrituz.

Azken urteetan, San Juan baleontziaren erreplika zehatza eraikitzea izan da Albaolako esperientziaren ardatz nagusia. Baleontzi hori XVI. mendekoa da, jatorriz Pasaian eraiki zen 1563an, eta 1565ean hondoratu zen Labradorreko kostaldean (Kanadan).

Museoaren erakusketan azaldu ziguten XVI. mendeko euskal itsas historia, bereziki San Juan baleontziaren historia eta eraikitze prozesua. Bi taldetan banatu ginen, euskarazkoa eta erdarazkoa, museoari buruzko istorioak entzun eta ikusteko. Erakusketa hau itsasontziaren eraikuntza-prozesuaren testuinguruan kokatzen da, eta gai hauek aztertzen ditu, besteak beste: lehen bidaia transozeanikoak, baleontzi bateko bizitza eta baleen ehizak Mundu Berrian duen garrantzia.





Hasiera ematerakoan, gidariarekin



Erakutsi ziguten nola banatzen zituzten zamak itsasontzian, zer eramaten zuten, tartean milaka litro sagardo. Ekarri, berriz, milaka litro bale olio, gero hemen saltzeko, 6-8 hilabeteko lanari etekina ateratzeko.

Museoa ikusi ondoren izan genuen tartetxoa Pasaia ikusteko, bai San Pedro eta baita San Juan. Autobusean bazkaltokirako bidea hartu genuen gero.

Bazkaria Tolosako Bidebide jatxean genuen hitzartua eta hara bideratu ginen. Alde zaharreko Euskal Herria enparanza kokatua dago jatetxea, eta janari bikaina ematen dute.

Bazkal ondoren, nahiz euria hasi zuen, Tolosara bisita egin genuen, eta hango gozokiak dastatu eta etxera ekartzeko erosketak egiten ibili ginen itzultzeko ordua iritsi arte.

Bestetik, Orgi parkea ikusteko aukera izan genuen azaroaren 12an, arduradunek gonbidatuta eta bere gidaritzapean. Maila errazeko ibilbidea egin genuen, gure ongizate fisiko, mentala eta soziala lantzeko baliagarria izan zen.

Azaroko mendi irterei dagokienez, Gorostieta gainetik Leurtzara joan ziren hilabete honetako partaideak. Eguzkia lagun izan zuten, nahiz behean lainoa zegoen, zoragarria mendian barna ibiltzeko.

Hurrengoan, urte amaierako festaz eta Burdindogi mendira egingo den ibilaldiaz idatziko dugu. Datorren urtean izanen duzue horien berri. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkarte



Ludoteka eta haurrendako neguko tailerrak, Imotzen eta Basaburuan

Euskara zerbitzuak antolatuta, neguko ludoteka izanen da aurten Jauntsaratsen, Apeztegiberriko ganbaran. Abenduaren 22an, 23an, 26an, 29an eta 30ean izanen dira 'neguko herri tailerrak', goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:30ak arte. Adinari dagokionez, 5 eta 11 urte arteko haurrei zuzendu diete ludoteka, eta abenduaren 12an itxiko da ekimenean izena emateko epea.

Bestetik, abenduaren 27an ekimen berezia izanen da Imotzen, Etxalekuko Biltokian: txotxongilo ikuskizuna izanen da bertan Andrina Basandrina artistaren eskutik, arratsaldeko 17:00etan. 3 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako ekimena da, baina badakizue, helduok ere aukera ederra izanen dutela txotxongilo ikuskizunaz gozatzeko...



Profesionalendako ate irekiak eginen dituzte Txololateroko eguneko zentroan



Jauntsarasko Txokolateroren etxea egokitzeke zaharberritze lanak bukatu eta gero, eguneko zentroa martxan jartzeko proiektua garatzen ari da honezkero Udala, udaberrian ateak zabaltzeko helburuarekin. Ate irekien jardunaldi berri bat antolatu dute oraingoan, baina erabiltzaileei zuzenduta egoteaz gain, batik bat eguneko zentroan lan egin lezakeen jendeari zuzendua egonen da jardunaldia: arreta soziosanitarioko profesionalei, autonomiaren promoziokei, alor fisikoan aritzen direnei, terapeutei, sukaldariei nahiz antzeko jarduerak egiten dituztenei zuzenduta egonen da jardunaldia, beraz. Abenduaren 16an izanen da ekimena, arratsaldeko 18:00etan.

Aldi berean, gunearen kudeaketa martxan jartzeko lanean segitzen du Iniciativas para la Tercera Edad S.L. enpresak, eta martxorako lanak amaituko dituztela aurreikusten dute. Bestalde, Udalak erabakia du honezkero Basanet Basaburuko Udalaren Sozietatearen bidez kudeatuko dela zentroa, eta horretarako, 2018an sortu zuen elkarte horren estatutuak eguneratzen ari da.



OHARRAK - GALDUTAKOAK

Urriaren 7an Orkingo behi etxalde baten inguruan **errifle baten bisorea** galdu zuten, argazkikoaren antzekoa. Norbaitek aurkituko balu, ondoko telefono zenbaki honetara deitzea eskatzen du jabeak: 618 963 156. Eskerrik asko.



‘Txondor plaza’ antzezlanaren prestatzen ari da Txetxu Collado aizaroztarra

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* beka jaso du Aizarozko Argimalutak konpainiak, eta ‘Txondor plaza’ zirku eta antzerki ikuskizuna prestatzen ari da Txetxu Collado gidaria. Berriatuan egokitu zaio egonaldia, eta irailean txondorra egin zuten bertan, herritarrekin batera, auzolanean. Antzezlanaren sorkuntza prozesuaz aritu ginen berarekin Esan Erran irratian. Bertan azaldu zigunez, otsailaren 14an Iruñean eta 21ean Berriatuan aurkeztuko du lan berria Colladok.

Betidanik izan du txondorgileekiko eta beste-lako ‘antzinako lanbideekiko’ interesa antzezleak, eta hortik abiatu du bere lehen ekoizpen propioa den lana. Prestaketa eta entseguekin ari dira orain, baita gidoiko azken xehetasunak isten ere.

ARGIA aldizkariko Egonarria saioan Berriatuan izan ziren txondorgileekin ([ikusi elkar-irizketa](#)).






Lan babestutik aurtan egin dituzten konponketa eta eraberritze lanak

Urtero bezala, eskualdeko hainbat herritan aritu dira Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lan babestuko programako kideak eraberritze eta konponketa lanak egiten. Helburu bikoitza izaten du lan babestuko programak: alde batetik, herrietako ondarea babestea eta balioan jartzea, eraberritze eta konponketen bidez, eta bestetik, proiektuko kideei ikasketa prozesua eskaintzea. Aurtengoan, monitorearen laguntzerkin egin dituzten hiru lan nabarmendu dituzte Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik:

- Itsasoko iturriaren berreskuratze lanak egin dituzte
- Basaburuan, Jauntsarasko frontoian txirrin-dulak garbitzeko gunea eraiki dute
- Etsainen, etxola baten paretak konpondu dituzte

Argazkian ikus daiteke zein txukun gelditu diren konponutako tokiak.



Martxan dira Oarrizko planta fotovoltaikoaren obrak, Atetzen

Atezko Amalainen Oarriz planta fotovoltaikoa eraikitzeko lanak abiatu ditu honezkero Ready To Build enpresa promotore nafarrak. Eguarastik Markalainera doan NA-4100 errepidearen ondoko lursailean ikus daitezke lehen eguzki plakak muntatuta. Guztira, 1,4MW-ko potentzia gailurra izanen du plantak, eta 2,62 hektarea hartuko ditu. Enpresa bultzatzaileak espero du urtarrilerako plantaren obrak amaituak izatea. Behin guztia muntatuta, Industria Kontseilaritzaren eta Iberdrolaren esku geldituko da planta martxan jartzea eta sarera konektatzea.

Atezko Udala aitzindari izan da energia berriztagarriei dagokien Nafarroako Lege Foral baten aplikazioa eskatzen. Izan ere, lege horren arabera, lur publikoa erabiltzen duten energia berriztagarrien instalakuntzen kasuan, jabetzaren %51 tokiko biztanle eta enpresei eskaini beharra die promotoreak parte-hartze prozesu baten bidez. Lehen aldia da Nafarroan horrelako proiektu batek herritarrei parte-hartzeko aukera zabaldu diena. Atezko herritarrei eta entitateei zabaldu zieten deialdia

uztailean, eta horren ondotik, mugakide diren udalerrietan. Momentu honetan, eskualdeko nahiz kanpoko edonork har dezake parte Oarrizko proiektuan.





Gartzarongoa eta gero, Pilota Goxoa txapelketa bukatzeaz

Ospe handia du esku pilotak eskualdean, eta horren lekuko da aurten Basaburuan sortu den gazteen esku pilota talde berria. Ostiraletan elkartzen dira entrenatzeko. Baina, entrenamenduez gain, txapelketak dira gurean pilotari garrantzizko lekua ematen diotenak. Hain zuzen, azaroaren 1ean jokatu zituzten Gartzarongo 40. Pilota Txapelketako finalak, jendez betetako frontoian. Hauek izan ziren txapelketako finalak emaitzak, maila bakoitzean.

Umeak

Goñi / Zuvieta (Bortziriak)

18 - 17

Elizegi / Zabaleta (Goizueta / Leitza)

Haurrak

Areitio / Madariaga (Zornotza / Markina)

07 - 18

Eizagirre / Labaka (Behar Zana / Ataun)

Neskak

Lopez de Okariz / Ozaeta (Zaramaga)

18 - 12

Alberro / Arruti (Ados / Ziotza)

Gaztetxoak

Zufiria / Ugartemendia (Behar Zana / Leitza)

09 - 18

Paraguay / Anzizar (Naiara / Erreka)

Gazteak

Murua / Ormaetxea (Alegi / Lapke)

16 - 22

Nazabal / Artetxe (Larraun / Azpeitia)

Helduak

Barbajero / Alduntzin (Atarrabia)

12 - 22

Mata / Irurita (Atarrabia)

Gartzarongo Txapelketa bukatzeaz zela, **Pilota Goxoko txapelketa** hasi zen urriaren 24an. Guztira, 28 bikotek eman dute aurten izena Imozko eta Basaburuko Kirol Batzordeak antolatzen duen ekimenean: 8 bikotek lehen mailan, 12 bikotek bigarrenen, eta beste zortzik hirugarrenen. Abenduaren 12an jokatuko dira finalak, kasu honetan ere Gartzarongo frontoian.





Makroetxaldeak eta Caparrosoko epaia

Gotzone Sestorain: "Neurri zuzentzaileek ez dute arazoa konponduko. Nafarroan, lur emankorrak galtzen eta ura kutsatzen ari dira"

Valle de Odieta enpresak Caparrosen duen makroetxaldeko bi zuzendari zigortu ditu Iruñeko auzitegiak, ingurumenari kalte egin eta legez kanpo digestatzea naturara isurtzeagatik. Makroetxaldearen kontrako plataformako eta Habelarte Mendialdeko baserritarren elkarteko kidea den Gotzone Sestoraini epaiaz galdetu diogu. Epaitegiek arrazoia eman dietela dio, behin eta berriz salatu dutena egiaztatu; baina, ez duela arazoa konponduko, hau ez baita Valle de Odieta enpresara mugatzen. Eredu industrialia eta intentsiboa seinalatu du

Iruñeko Zigor Arloko 2. epaitegiak 11 hilabeteko kartzela zigorra ezarri berri die makroetxaldeko Odietako bi zuzendariri, baita abeltzaintzan aritzeko bi urteko inhabilitazioa ezarri ere. Halaber, 4.200 euroko isuna ezarri zaie enpresaren abeltzaintza arloko bi goi kargu horiei. Epaitegiak egiaztatu du jakinaren gainean zeudela digestatzea barreiatu zutenean, eta teknikariek frogatu zuten isuria Aragoi eta Arga ibaira heldu zela.

Greenpeace eta Sustrai Erakuntza erakunde ekologistek jarri zuten salaketa eta akusazio partikularra izan dira epaiketan. Bi taldeak Nafarroako

Makroetxaldearen kontrako plataformaren kide dira, beste eragile eta herritarrekin batera. Plataformako kidea den Gotzone Sestorainekin hitz egin dugu epaiari buruz.

Nola hartu duzue epaia?

Behin eta berriz salatzen ari gara zer ondorioak dakartzaten horrelako makroetxaldeek eta nik uste dut epaitegiek arrazoia eman digutela. Ez naiz sartuko baloratzen ezarritako zigorra nahikoa den edo ez. Bere garaian Greenpeaceari ezarri zioten isunarekin alderatzen badugu, iruditzen zaigu askoz ere garestiagoa

ateratzen dela ingurumena, lurraldea eta lurra defendatzea, kutsatzea baino. Baina epaituak izan dira eta zigor bat jaso dute, eta demostratu da, oso garbi, hor delitu bat egin zela. Eta konfirmatzen du plataforman gauden eragile desberdinak behin eta berriz salatzen ari garena: ustiategi erraldoi honek nolako ondorioak dakartzan gure lurraldean.

Hau argituta esan behar dut, hala ere, arazoa ez dela mugatzen Valle de Odieta. Arazoa erabat hedatua dugu Nafarroan, baita zonaldean ere. Oso urrutira joan gabe, hor, Oskotzen, badago behitegi erraldoi bat. Behitegi



Greenpeaceko kide bat isurketa bat aztertzen Caparrosen



erraldoi horrek, behitegi handi guztiek bezala, berarekin dakar txisaren arazoa. Baita zerritegi handi guztiek bezala ere, handia den guztiak, alegia. Zer egiten da hondakin horiekin? Inguruan dauden lurretan botatzen da, behin eta berriz. Eta horrek dakartza lur horien hondatzea, erabat hondatuta daude, baina baita ur gaineko zein azpiko uren kutsatzea ere. Eta hori oso larria da. Nafarroan lur emankorrek galtzen ari dira. Baina baita bizitzarako beharra den baliabide bat: ura. Nafarroak ur pila bat du, baina gertatzen ari dena da gero eta kutsatuagoa dagoela.

Horrelako epaiak zerbait aldatuko al du? Horrelako makroetxaldeek gauzak bi aldiz pentsatuko al dituzte?

Oso zaila dute. Zergatik? Dimentsioa-gatik. Dimentsio handi horiekin neurri zuzentzaileak besterik ezin dira ezarri, baina hartzen diren neurri zuzentzaile horiek ez dute arazoa konponduko, hor dagoelako alde ekonomikoa ere. Soluzio bakarra desintentsifikazioa da: etxaldeak txikitzen hasi, makrogranja eredu horiek desagertzeko bidean jarri beharko lirateke, eta ez da egiten ari, Nafarroako Gobernuak jarraitzen du makroetxaldeei baime-nak eta lizentziak ematen. 500 behi-

tik gora makrogranja bat da, nahi den bezala apaindu daiteke baina hori makrogranja bat da. 300etik gora ere oso-oso zaila bihurtzen da hondakinen kudeaketa. Eta zerriekin zer esanik ez. Eta Nafarroan nonahi ditugu 7.000 zerriko etxaldeak. Horiek sortzen duten minda eta hondakin kopuruak ikaragarriak dira eta kudeatzea ezinezkoa da. Nahi dutena esanen dute baina gezurra besterik ez da. Dena da itxurakeria eta gezurra.

Nafarroako Gobernua aipatu duzu. Kasu honetan zuek bezalako plata-formei esker etorri da epaia, Greenpeace eta Sustrai izan ziren akusazio partikularra. Administrazioak ezin du kontrolatu legea betetzen ari den?

Ematen du Ingurumen Departamentua ez dela gure lurra eta gure lurraldea babesten ari. Herritarren eta ingurumenaren zaintzailea izan beharrean, horrelako eredu baten konplize da. Salaketak behin eta berriz jasotzen ari dira, herri anitzetatik, hemen benetan mugitzen ari dena ez delako Departamentua baizik eta herritarrek, eta gobernutik ez dute ezer egiten. Eta ez bakarrik hori. Valle de Odietak anplazio bat eskatu zuen,

aspalditik gehiengo gairiditu duela ere. Estatu mailako topea 850 AUtan ezarri da eta beraiek ia 8.000 buru dituzte*. Bada, zirrikitu bat aprobetxatu zuten, zirrikitu legal bat. Hor, legedi berriaren eta aurrekoaren artean zirrikitu bat zegoelako. Guk galdetzen dugu, zer txibato izan da zirrikitu bat zutela esan diena? Orduan, guk arazoa Gobernuan bertan ikusten dugu, departamentuetan. Bai Ingurumen Departamentuan baina baita Landa Garapeneko Departamentuan ere, beraiek direlako eredu hau behin eta berriz baimentzen eta sustatzen ari direnak. Duela 30 eta 40 urte UPNk bide bat ireki zuen zentzu honetan, baina 'aldaketaren' gobernuak gauza bera egiten jarraitzen du. Ez du aldaketa minimorik egin. Zirkuitu laburren eta beste eredu baten aldeko gauzak egin ditu, baina guk esaten duguna da bi eredu hauek ez direla bateragarriak. Hemen, Nafarroan, zoritxarrez, desagertzen ari dena eta gero eta egoera okerragoan dagoena baserri txikia da; eta sekulako indarra hartuta dauka eredu industrialak. Zergatik den hori galdetzen dut.

* Espainiako RD 1053/2022 dekretuak 850 AU baino gehiago dituzten ustiatzeen handitzeak debekatu egiten du. (AU= Abeltzaintzako Unitate; gazteleraz UGM= Unidad de Ganado Mayor).

Biometanizazio plantak

Urriaren 30ean, EH Bilduk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak lege proposamen bat aurkeztu zuten Nafarroako Parlamentuan, biometanizazio planten tramitazioak bi urtez gelditzeko. Ordea, azkenean, PSNk eta UPNk adostutako zuzenketa bat atera zen aurrera, eta soilik urtebeteko luzamendua onartu zuten. Gainera, tramitean direnek aurrera jarraituko dute.

Gotzone Sestorain: "Energia sortzeko planta horietatik ateratzen den digestatza ere kutsakorra da, nitratoak dauzka. Hori modu egoki batean egiteko lur azalera handiak hartuz egin beharko litzateke. Baina horrek kostu bat du eta, azkenean, inguruan dauden lurak dira behin eta

berriz ureztatzen direnak. Digestatza Erriberako erregadioetan erabiltzen ari da, baina behin eta berriz erabiltzearekin nitrato bidezko kutsadura zabaltzen ari da. Aurtengo udaberrian Nafarroako Gobernuko txosten bat atera zen non esaten zen Nafarroan nitratoz kutsatutako lur azalera 93.000 hektariatik ia 250.000 hektareara pasatu dela. Hori ikaragarria da. Baina hori ez da eten behar bide honetatik segituz gero. Arazoa gero eta handiagoa izanen da. Biometanizazio plantek energia sortzeko balioko dute baina nitratoen arazoa ez dute konpontzen".

info +





Urritzako

Kontzejuaren gutuna

Urritza ez da inoren zabortegei pertsonala

Urritzako Kontzejuak publikoki salatu nahi du gure herrian gero eta larriagoa bihurtu den egoera. Urritzako Bentetako inguruan dauden edukiontziak (beste herri eta bailaretako bizilagun asko pasatzen diren eremu batean kokatuta daudenak) modu desegokian eta gizalegerik gabe erabiltzen ari dira

Egunero gure herrian gertatzen ari dena onartezina da. Zenbait pertsona autoaren leihotik zuzenean zabor poltsak botatzen ikusi dugu, autoa gelditu ere egin gabe, poltsak edozein lekutan erortzen utziz eta gure herriko ingurua zikinduz. Ez gara edukiontzien kanpoaldean utzitako poltsei buruz bakarrik ari; askoz ere larriagoa iruditzen zaigu jende askok espazio hori beraien zabortegei edo puntu garbi pertsonal gisa erabiltzen duela.

Azken hilabeteetan egoera kezkarria bihurtu da. Eremu horretan eraikuntza-hondakinak, sofa zaharrak, etxetresna elektrikoak, olio mota ezberdinak, auto-gurpilak eta izozkailu handiak agertu dira. Okerrena da askok ez dutela zaborra edukiontzien barruan sartzeko minimo bat egiten ere... Urritzako bizilagunok gara egunero beste batzuek han utzitakoa bildu eta txukundu behar dugunak.

Norbaitek eremu horretan tamaina handiko gauzak uzten dituenean, erantzukizuna (juridikoa, ekonomikoa eta operatiboa) zuzenean Urritzako Kontzejuaren gain geratzen da. Jendeak gogoan izan behar du eta Urritzako Kontzejutik argi eta garbi utzi nahi dugu, Urritzako edukiontziak ez direla garbigune bat, ez tamaina handiko edo arriskutsuak diren hondakinak botatzeko leku bat ere.

Urritzako Kontzejua eta hemen bizi garen herritar guztiok, nekatuta gaude. Gizalege faltagatik, Urritzako ingurunearekiko dagoen errespetu faltagatik eta heziketa faltagatik

“
**Urritzako
bizilagunok gara
egunero beste
batzuek han
utzitakoa bildu eta
txukundu behar
dugunak**
”

nekaturik. Etxetik atera eta gure ate aurrean besteen zaborra ikusteaz nekaturik. Gure herria zikintzen dutenek inolako ardurarik gabe jarduteaz nekaturik. Traperos de Emaus bezalako zerbitzuek, objektu zaharrak edo matxuratutakoak jasotzeko eta bigarren bizitza emateko lan egiten dute, eta badira ere garbiguneak. Zerbitzu hauek guztiak zerbitzetarako existitzen dira...

Ondoko herrietako bizilagunen, ondoko bailaretako herritarren eta in-

gurutik pasatzen den jende guztiaren partetik errespetua eskatzen dugu. Gure herriarekiko, gure bizilagunekiko eta gure herriaren ingurunearekiko errespetua eskatzen dugu. Egoera hau ez dugu gehiago onartuko. Eremu horretatik igarotzen diren pertsona guztiei ardura eta zintzotasuna eskatzen dizkiegu. Gure herria garbi eta duin mantentzea ez da bakarrik hemen bizi garenon etengabeko lana izan behar, baizik eta guztion arteko konpromisoa. Urritzak errespetua merezi du eta hori defendatuko dugu.

Horregatik, mezu garbi eta irmo bat zabaldu nahi dugu: **Urritza ez da inoren zabortegei pertsonala.**



Urritzako Kontzejua





Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek, Ultzamaldeko herritarrei gutuna

Kaixo, auzokideok!

Meltxor, Gaspar eta Baltasar gara. Berehala iritsiko zaizkigu zuen gutunak, baina aurren, guk idatzi nahi izan dizuegu lehenago.

Duela urte batzuk lauzpabost familiek prestatzen dute gure iritsiera, urtarrilaren 5ean. Behar dugun guztia prest izateaz arduratzen dira: gure jantziak garbi eta autoa ere prest, bestak beste. Oso pozik jartzen gara urtero, zuek guztiok ikustez. Baltasarrek dio geroz eta jende gehiago etortzen dela gu ikustera eta hori ederra iruditzen zaigu. Baina horrela jarraitzeko laguntzaile gehiago behar ditugu, prestakuntza lanetarako, zuen eskutitzak hartzeko eta bidean laguntzeko (Meltxor baldar samar dabil dagoeneko). Ez dugu nahi inor oparitzorik gabe gelditzerik, ez etxeko txikienak ezta zahar-etxeko adineko jendea ere.

Horregatik guztiagatik eta egun horrek magikoa izaten jarraitzeko, laguntza eskatzen dizuegu.

Gure laguntzaileekin harremanetan jarri zaitzekete cabalgataultzamaldea@gmail.com posta elektronikoan.

Mila esker eta laster arte!





Peio Etxeberria, txapela ospatzen



Julen Kañamares, Euskal Timber txapelketan trontzan



Enarak dokumentalaren proiektzioan jende asko bildu zen Erason



Erasoko zapatagilearen Madrilgo bezero kuadrilla



Gartzarongo 40. pilota txapelketako finala



Igoako Ostatuak irabazi du Basaburuko pintxo lehiaketa



Enarak dokumentalaren aurkezpena Erason



Peio Etxeberriaren finalean



Oktoberfest Etulainen, azaroaren 1ean



Oktoberfest Etulainen, herriak elkartean antolatutako festa



Plubiometroan eta termometroan ez ezik, eguraldia zeruan, arboletan eta aziendetan irakur dezakeen suarbearra

Txikitatik izan du eguraldiarekiko eta metereologiarekiko interesa Jesus Mari Altuna Villanueva suarbearrak. Bere jaiotetxearen ondoan, Erletoki izeneko etxean bizi da, aitona erlezaina baitzuen eta erlauntza asko izaten baitziren bertan. Hain zuzen, aitonarengandik jaso zuen eguraldiarekiko zaletasuna, eta harekin ikasi zituen zerua eta ingurua behatuz eguraldia ulertzeko moduak. Etxe atarian datu metereologikoak jasotzeko tresnak ere baditu gaur egun ultzamarrak

Plubiometroa, termometroa eta haize-orratza ditu Altunak etxe atarian, baita berak eskuz egindako anemometroa ere. "Termometroak momentuko tenperaturaz gain, eguneko maximoak eta minimoak ere jasotzen ditu", azaldu du. Urte asko daramatza suarbearrak eguneko datuak biltzen eta koaderno batean zerrendatzen. "Datuak apuntatzea gustatzen zait, baina niretzat egiten dut lan hori. Gerora, egun horretan zein eguraldi egin zuen begiratzan dut, ze tenperatura... eta kontrastatu egin ditzaket", azaldu du.

Urtaroak eta zotal egunak

Altunak azaldu duenez, betidanik izan du eguraldi kontuekiko interesa. "Aitona zenak halako gauzak asko begiratzan zituen, zerua, hodeiak, urtaroak...", dio. Tenporak izendatzeko erabiltzen dute 'urtaro' hitza. Azaldu duenez, urtean zehar lau aldiz egoten dira tenporak: martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. "Hiru egun izaten dira: asteazkena, ostirala eta larunbata. Eguna hasten denean begiratu egin behar da ze haize dabilen, eta gero, egunean zehar orokorrean zer gelditzen den: nahasia, lasaia...", azaldu du.

Hiru egun horietan gertatzen denaren arabera, hurrengo hiru hilabeteetako eguraldia iragarri daiteke, gutxi gorabehera. "Orain, irailean, udazkeneko hilabeteak iragartzeko

“ Gaur egun jende gutxik hartzen du zerura begiratzeko tartea, denbora galtzea iruditzen zaie ”

tenpora izan dugu. Hego haizea eta beroa markatu ditu batik bat, baina azkeneko momentuan, larunbat arratsaldean, iparraldeko haizea sartu eta hodeitsu jarri zen... beraz, nik pentsatzen dut abendu hasieran aldatuko duela”, dio.

Tenporen kontua –edo, urtaroena– ezaguna da, baina Altunak beste kontzeptu bat ere erabiltzen du: zotal egunak. "Abuztuko lehendabiziko 12 egunak dira zotal egunak. Gaur



Urteak daramatza eguraldiaren inguruko datuak hartzen Altunak ▲



Termometroa, plubiometroa eta haize-orratza ditu etxe ondoan ▲

egun ez du askorik markatzen, baina ni txikia nintzenean beti, abuztu hasierako egun horiek nahasiak izaten ziren, ekaitz askokoak... abuztuaren 1ak abuztua markatzen zuen, abuztuaren 2ak iraila, abuztuaren 3ak urria... eta, horrela, urte osoko hilabeteak", dio. Dena dela, nabarmentzen duenez, garai batean oso ongi funtzionatzen zuen zotal egunen kontuak, baina gaur egun ez da lehen bezain argia izaten. "Ez iaz eta ezta aurten ere ez da lehen egoten ziren abuztu hasierako egun aldakorrik egon", gehitu du.

Eguraldia azienda, lore eta arboletan irakurtzen

Gaur egun nagusi den bizi eredu azkarrarekin geroz eta jende gutxiagok hartzen du zerura begiratzeko eta eguraldian arreta jartzeko tarteak, ultzamarraren ustez. "Batzuk etxetik atera eta behera begira ibiltzen dira kaletik, eta ni, berriz, gora begira. Goizeko zeru gorri

horiek begiratzeko gustuko dut, eta aziendak begiratzeko ere bai. Izan ere, aziendaren jarrerak ere pistak ematen ditu eguraldiaren inguruan", gehitu du. Ardien mugitzeko modua aipatu du, esaterako. "Ardiak saltoka bezala hasten direnean, trostaka, asko mugitzen direla... aldaketaren bat etorriko dela esan nahi du, haiek nabaritzen dute zer baita", dio. Udan, berriz, bero handia datorren egunetan goizean goiz egoten omen dira jan eta jan, belarra lehortzeko beldurrez. "Ardiak goizean lasai etzanda ikusten badituzu, ziur atsalderako freskatuko duela, edo estaliko duela...", gaineratu du.

Dioenez, baratzean eta inguruko basoetan erreparatzea ere lagungarri izan daiteke eguraldiaren dinamikak ulertzeko. "Azken aldian, bazoaz pagadietara, ingurura begiratu, eta arbola asko ikusten dira lehortuak... hegohaizea aisago sortzen da gaur egun, eta hori nabaritzen da arboletan", dio. Loreekin ere

“ Kliman aldaketa ikaragarria sumatu da azken urteetan ”

berdintsu gertatzen dela gaineratu du: azken urteetan eguzkiak 'erre' egiten dituela eta, lehen eguzkiak ez zuen indarra duela egun dio.

Hormarik eta elurrik ez

Klima aldaketaz asko hitz egiten denez eta Altunak urte asko daramatzanez eguraldiari begira, aldaketa esanguratsurik sumatu ote duen galdetu diogu. "Bai, noski, aldaketa ikaragarria sumatzen da. Lehen, urteko garai honetarako sua pizten egoten ginen, eta azken urte hauetan ez du hormatu. Duela urte batzuk, aste bete horma batean egon gintezkeen, eta usatuak geunden metro erdi elur izatera ere", dio. Zotal egunek ere azken urteotan ez dute garai batean bezala funtzionatzen, klimaren joera asko aldatu delako. "Eurria egiten duenean ere, ur zaparrada ikaragarriak botatzen ditu orain, lehen ez zuen hainbeste egiten kolpean", gaineratu du.

Urte askoan pilatutako jakintza du Altunak, aurreko belaunaldietatik jaso duena, baina gaur egun, orokorrean, interes gutxi ikusten du jende gazteagoaren partetik. Gaurko bizimodu azkarrean, errazagoa dirudi mugikorrek aplikazio batean iragarpena begiratzeko. Baina zeruak eta inguruak kontatzen dutena irakurtzen jakitea oso baliagarria eta interesgarria denik ezin uka...



Esan omen zion behin...(7)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...

Azken bi zenbakietan Beuntza aldean ibili gara. Elkarrizketa luze bat eta, beraz, oraingoan erregistroz aldatu beharra. Pulunpe honetarako banuen historia gai bat prestatuxea, eta ez motza, baina gure Benita Sasturainen heriotzak beste bide bat hartzeko gogoia ekarri dit

Irakurtzea debekaturik ote?

Atzo balitz bezala dut gogoan. Bai, halaxe dut, nahiz 1985eko negua izan, nahiz orain 40 urteko kontua izan. Gaueko hamarrak eta erdiak izanen ziren, oker ez banago. Negu bete-betea, kanpoan ilun eta etxe aurrean ere argitasun handirik ez, karrikako farola ez hain hurbil. Ni, familiarekin lehen pisuan bizi naiz eta bigarreanean medikua eta

familia. Gaur, atsaldean, mediku andreak alde egin du norabait eta beheitiko atean itsatsia paper handi bat jarri du: **Larrialdiren bat bada, mesedez, deitu Ultzamako medikua. Telefonoa: *****.**

Bat batean auto baten hotsa entzun dut Udaletxeko ate aurrean gelditzen. Nor ote da garai honetan? Leihora hurbildu eta isil-isil krisketari eragin eta zirrikitu bat ireki dut.

Autoan bada jendea, jolasa entzuten diet. Ez dute prisa handirik, ez. Minutu pare baten ondoren hiru gizonkote atera dira, txoferra autoan utziz, motorra martxan. Euskaraz mintzo dira baina ez ditut ezagutu, ez ibarrekoak zirenik ez beste nonbaitekoak. Apalegi ari dira nire belarrientzat.

Atera hurbildu eta txirrina jo dute behin eta berriz. Goitiko pisuko



Sasturaindarrak. Pakita Jauntsaratsen hil zen eta beste bi ahizpak Gerendiango zahar etxean.
2011ko fotografia honetan hiru ahizpak (Joxepita, Pakita eta Benita)



txirrina atertu gabe ari da eta nire bizitzaraino hedatzen da soinua.

Jo eta jo ari dira, baina ez dira bate-re urduritzen. *Aterako naiz, aterako naiz...* dudan nengoen, baina halako batean, haietako bat honela mintzatu da:

-Goazen, goazen Txokolateron itxa! Han jakiñ'aitek zerpatte!

Autora abiatu dira baina atzena gelditu den gizonkoteak honela esan die:

-Zauzte, zauzte, hemen baziok paper bat, zerbatte yartzen dik!

-Utz'ak, utz'ak, Txokolateron itxan esain ziutek zerpatte! –besteak erantzun

Eta han joan dira, autoan sartu lasai ederrean, neguaren bihotzean, egunik motzenak diren honetan **Txokolateroren** etxera; gaueko hamarrak eta erdietan.

Bai Benitaren etxea egun guziaz egoten da irekia, baina honezkerro sukaldean daude, aspaldian arrosarioa errezatu eta afaldu ondoren; jolasean ariko dira. Bai,

etxe hau jende guziendako irekia dago egun guzian, goizean goizetik gaueko zortziak eta erdiraino. Beti jendeari mesede egiteko, ibarreko beharrei erantzuteko, mandatuak hartzeko...beti prest, beti abegikor. Baina kartel bateko lau hitz leituko ez dutela, hor agertuko dira ate joka ezorduetan galdezka:

-Medikuu non ote da?

Irakurtzea ez dago debekatua, Txokolateroren etxean ere bertakoren bat seguru ari dela egunkaria irakurtzen edo, agian, Don Silvestre (1) libururen bat. Baina lau gizon ez dira gai izan kartel ttiki bateko esaldia irakurtzeko.

Beste etxeetako haurrak azkar hazten dira

Benita Sasturain Alberro, Jauntsarasko Txokolateroren etxeko etxe-koandrea orain berriki Gerendiaingo Zaharretxean hil zaigu. Hain zuzen, azaro eder honetako lehen egunean 102 urte betetzeko 24 egun falta zitzaien.

Dendan -janari-edari-espartzin -de-

netatik saltzen zuten Jauntsarasko *Txokolateronean*. Eta estankoa. Dendan, nahi zuenarentzat edari zerbait ere bai, ardoa edo zerbeza, adibidez eta horrela egunero tertuliatxoak izaten ziren egunean barna eta seguru atsaldeko azken orduan, atsaldeko zazpitan, zortzitan... aroaren arabera.

Vasconia Bankuko eta Nafarroako Kutxako korrespontsalia ere berak eramaten zuen. Eta, gauza horietaz landa, Udaleko Diruzaina izan zen bere aita hil ondoren, zahartu artio.

Esan dugun bezala denda izaten zuten, sartu eta ezkerretara zuen lehen gelan, kanpoko aldera leiho eder batekin. Dendako leihotik etxe ondoa ikusten eta dendako atetik ezkaratzera sartzen zen guzia ere bai.

Hala, egun batean, herrian zebilen eskean errumaniar jito bat, haur bat besoetan eta beste bat sabelean, eta Benitari goizean goiz etorri zitzaien eskaka.

Eta eguerdi aurrettoan, hara non ikusten duen dendako atearen paretik pasatzen itzal bat bezala.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Itzalaren atzetik atera zen Benita eskaileteran gora lasterka, eta han lehen pisuan norekin topo eginen eta goizeko jitoarekin.

-Zer zabiltza hemen?

-Hara, muttikoa galdu zait eta hona etorri ote den nago.

-Besoetako haurra hemen? Nonbait Errumanian azkar hazten dira haurrak, jaio orduko oinez ikasten al dute?

-Bai, andre, bai, gure haurrak oso biziak dira.

Ez zen lehenbiziko lapurra Txokolateroren etxean sartzen zena. Beharrik Benita ernea baino erneagoa!

Bai, errumaniar jitoen umeak azkar hazten dira! Gure bakanak hala haziko balira zoriontsu ginatke! Eta bakanak ez balira, zoriontsuago! Bai horixe!

Eta gainera, pixa egiten digute gainera.

1940ko hamarkadan izan zen. Mexikoko hiriburuan bildu ziren Espainiako erbestean ziren Gorteak, eta Castelaok galiziar diputatu famatua ere bertan izan zen. Eta Prietok, Bilboko semeak eta politikari famatua izan zen sozialistak, hala esan omen zuen: "Espainia Errepublikaren gainetik dago"

Castelaok, hala komentatu omen zuen gero:

"Baina guretzat, Lerrouxen, Prietoren eta Albornozen Espainia hori, Errepublikaren gainetik jartzen deanean, Francoren Espainiaren oso antzekoa da" (2)

Batzarre triste horretatik bueltan, Buenos Airesera bidean, Habana-tik pasa omen zen eta Aireportuan, Francisco Marcos kazetari galiziarak galdetu omen zion:



▲ Alfonso Rodríguez Castelao. Bigarren deituraz zen ezaguna. Idazlea, dramaturgoa, marrazkilaria, medikua eta galiziar politikari maitatua eta entzutetsua. Erbestean, Argentinan hil zen 1950. urtean, 64 urtetan, hainbeste maite zuen Galizia berriz ikusi gabe. (El Diario.es)

-¿Qué pasó allí? Conta, conta.

Castelaok esan omen zion:

-Bohhh! Aquello... As veces están mean-do por un e hai que decir que chove.

Ez dago itzuli beharrik ere, baina garbiago jartzeko, honela itzultzen du Joseba Sarrionandia idazle handiak bere azken liburuan:

Jende horrekin gertatzen da ze batzuetan txiza egiten hasten zaizkizu gainera, eta euria ari duela esan behar duzu.

Bai, batzundako beti ari du euria, baita Galiziatik kanpo ere. Euskal herrian atertu gabe! Atergunerik ez dugu. Larria dugu egoera euskara-fobo espainol hauekin, oso larria. Iratzarri!!!!

Euskal Telebistan haurra mutu

-Hala! Diles algo! -ama euskaldun batek bere bi urteko haur ttikittoari.

Bihotzean hartu dudana zarratakoa! Nahigabea latza izan da.



Txurdan

(1) Txokolateroren etxean Benita bere bi ahizpekin bizi zen, hiruak ezkongabeak. Eta berekin apopilo Don Silvestre Baleztena Mutuberria, Ibarreko mediku jubilatua.

(2) Lerroux, Prieto eta Albornoz: Errepublika garaian eta lehenagotik ere politikari inportanteak, politika diferenteetakoak, baina beti-beti euskaldun-galiziar-katalanen kontra amorratuak -espainol hutsak-.

Hiztegittoa

Zenbakia: numeroa.

Krisketa: manilla.

Gizonkotea: gizon puska.

Mintzo: mintzatu.

Urduritu: nerbioso jarri.

Jolas egin: solas egin: hitz egin: mintzatu.

Abegikor: receptivo.

Azaroa: noviembre.

Aroa: temporada.

Euskarafoboa: euskara gorroto duena (gure artean ere, zoritxarrez, ez dugu horrelako piztiarik falta).

Turista:

g. eta e.

“Gureena partekatzeko pertsona”



Francisco Javier, bere emaztearekin batera, hotel txiki baten zuzendaria da, Elizondon. Turismoari esker, familia ustiategiek aktibo jarraitzen dute eta ingurunea sendotzen da. Bisita bakoitzak, tradizioak bizirik mantentzen eta komunitateko bizitza aberasten laguntzen du.

Nafarroa, behar bezalako turismoa

visitnavarra.es/elturismobienentendido



VisitNavarra.es

Euskaldunok

larri gabiltxa

Gure alderdiko **Ezpela Euskara Taldekook** euskararen egoeraz eta etorkizunaz UEMAK sortutako **11 bideo** banatu ditugu. Zuk jaso ez baduzu, hemen duzu aukera, QR honetatik bertatik jaso ditzakezu. Gure egoeraz eta etorkizunaz jakin nahi baduzu, ikusi bideoak. Ba-koitza 2 minutukoa da.



Lehenbiziko seiren laburpen ttikia:

Diagnostiko berri baterako gakoak

Zein da euskararen etorkizuna? Desagertzea? Ez al zegoen ba inoiz baino euskaldun gehiago? Zenbaterainokoa da egoeraren larritasuna?

Euskaldunak izan arren, herritar asko ez dira gai euskaraz lasai aritzeko. Ez dira gai erdaraz bezain trebe eta eroso euskaraz hitz egiteko.

Nola iritsi gara egoera honetara?

Azken mendeko euskararen historia

Zein izan da euskararen bilakaera azken mendean?

XX. mendean euskara indarra galduz joan da Euskal Herriko etxeetan. Zergatik?

Ondoren indarberritze fasea etorri zen, bai... baina moteltzen hasi zen XXI. mendean sartzearekin batera. Azken 20 urteetako datuetan ikus daiteke hobekuntza mantsotzen ari

dela, eta zenbait arlotan atzera egiten hasia dagoela.

Hizkuntza-gaitasuna

Desoreka handia da: herritar guztiak kontuan hartuta 12 lagunetik bakar-rra ari da errazago euskaraz. Euskal herritarren % 8a.

Hizkuntza-gaitasunari begiratuz, oso ahul dago euskara. Azken 30 urteotan asko hazi da elebidunen multzoa, baina ez da handitu euskaraz errazago egiten dutenen kopurua. Horrek eragin zuzena du erabileran, hizkuntza gaitasunak zerikusi estua baitu hizkuntza bat ala bestea erabiltzearekin.

Erabilera

Euskaraz dakiten herritarrek askotan ez dute euskaraz egiten... zergatik? Hasteko, askotan ezin dutelako euskaraz egin, mintzakideek euskaraz ez dakitelako. Horrez gain, eus-

kaldun askok erdarara jotzen dute, ez direlako euskaraz erraz aritzeko gai. Nahikoa euskara ez dakitelako.

Arruntena izaten da norberak errazago egiten duen hizkuntzara jotzea... baina beti hola da?

Atxikimendua

Ikerketek bakarrik ez; Historia hurbilak ere erakusten digu hizkuntzarekiko lotura berezia dutela euskal herritarrek. Beste hizkuntza gutxiagotu gehienetan baino mugimendu indartsuagoa garatu izan da gurean hizkuntzaren alde.

Euskararen aldeko jarrera horrek eragina du gero hiztunen erabakietan eta hiztun asko dira berez erdaraz errazago egin arren, euskara erabiltzen dutenak.

Herritar askoren euskararen aldeko jarrera da, hain zuzen, euskarak duen indargunerik nagusia.

Hizkuntz bilakaera

Zein hizkuntza gailentzen da hiztunen artean? Nola aldatzen dira bizitzan zehar Euskal Herriko hiztunen joera linguistikoak?

Etxean euskara hartu zuten hiztun askok erdara erabiltzen dute gaur egun. Aunitzek, gainera, galdu egin dute euskarazko nagusitasuna, eta gaur egun EZ dira errazago aritzen euskaraz erdaraz baino.

Horrek denak erakusten du euskal komunitatearen ahultasuna eta erdal komunitateen indarra zenbatekoa den.



Ultzamaldeko
Ezpela Euskara Taldea



Berueteko erdigunea. Gure alderdiko herririk euskaldunena



Azoroko eduki nabarmenenak dituzue hemen!

Hilero bezala, Esan Erran irratiko elkarrizketa, kolaborazio eta saio desberdinak entzungai daude amezti.eus agerkarian, baita eskualdeko agenda eguneratua eta aurreko Pulunpe aldizkarien PDFak ere...

Iritsi da, azkenean, Euskal Literaturako atala!

Aurten egutegiaren gorabeherak atzeratu gaituzte gure atal kuttunetako bat, Ainara Urritzak gidatzen duen Euskal Literatura tarte. Azkenean Egun Ero irratisaioan izan genuen Ainara eta nobela, ipuin-liburu eta saiakera

bana ekarri zigun: Laura Mintegiren *Akabo*, Irati Majueloren *Hiria gure oinetan* eta Eider Rodriguezen *Dena zulo bera zen*. Entzun xehetasunak kodigoa eskaneatuz.

Euskal literatura



Feminismoa protagonista beti, musika kolaborazioetan

Dakizuen bezala, Katak kuir musika txokoa gidatzen du aurten ere, eta azkenekoan KM-0ko musikari feministak ekarri zizkigun. Hau da, geografian gertu ditugunak. Ezagutu nahi badituzue, eskaneatu beheko QR kodigoa.

Bestetik, Oihana Fernandez Imozko abeslariaren, 'Disidentziak

musikan' kolaborazioan Blueseko dametatik, Rock and Rollaren aitzindarietara pasa gara. Eta ez, ez dira Chuck Berry edo Elvis,



Menphys Minnie, Sister Rossetta edo Big Mamma Thornton emakume afroamerikarrak baizik!

KM-0 feministak



Rock and rolleko emakumeak



Haritza gure toponimian, Badena eta Eztenan

Eneko Iurramendi 'Tintok' eta Mikel Lakasta gidatzen duten bitxikerien kolaborazio honetan, aurten, eskualdeko eta inguruko

toponimia aztertuko dute, landare izenak topatzeko asmoz. Lehenengoan, Haritzaz.

Badena Haritza





Beñat Senosiain gazte olaguearra, aurten bitan txapeladun

17 urte ditu Beñat Senosiain Anueko aizkolariak, eta denboraldi bikaina ari da egiten. Izan ere, Balmasedan jokatu zen Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketa irabazi zuen urrian, eta horren aurretik, Nafarroako 3. mailan ere txapela eraman zuen etxera. Azken hilabeteotako sentsazioez eta aizkora ibilbideaz solastu dugu berarekin

Euskadiko Aizkolari Gazteen txapelketa irabazi berri duzu Balmasedan, zer moduz joan zen?

Zorte ona izan nuen eta txapelketa irabaztea lortu nuen, bai. 18 urtez azpiko bost aizkolari aritu ginen, tartean zeuden gipuzkoarrak, nafarrak, eta baita segobiar bat ere. 13 minutu eta 55 segundotan amaitu nuen lana, bigarrenari minuto eta 40 segundo atera nizkion, beraz, tira, alde polita izan nuen. Egia esan, oso pozik nago.

Espero zenuen, edo sorpresa izan da zuretzat?

Tira, inoiz ez dakizu nola joanen den txapelketa. Etxean entrenatzen duzu, baina ez dakizu arerioak ere nola egonen diren txapelketari begira, baina egia da iaz ere denbora ona egin nuela gazteen txapelketan, eta beraz, jakin banekien aukerak banituela.

Balmasedakoa ez da aurten eskuratu duzun txapela bakarra izan, dena den...

Hori da, abuztuan Nafarroako 3. mailako txapelketa jokatu genuen eta hor ere garaile suertatu nintzen. Maila bakoitzean bigarren edo lehen postua eskuratuta, hurrengora pasatzen gara, beraz, hemendik aurrera bigarren mailan ariko naiz jokatzeko.





Beldurrik sortzen al dizu horrek?

Errespetua bai, baina beldurrik ez. Egia da maila handiagoa dagoela, lanak ere handitzen direla... baina, beno, horretarako ari gara lanean, eta ongi prestatzen saiatuko gara.

Oso gazte hasi zinen aizkoran, ezta?

Bai, umetatik etxean oso presente egon da aizkora, beti ikusi izan dut aita egurrak prestatzen, aizkora-ekin... uste dut ia konturatu gabe hasi nintzela aizkoran, bost bat urte nituela hartu izan nuen lehenbizikoz aizkora, eta ordutik orain arte horretan segitu dut.

Zer da kirol honetatik gehien gus-tatzen zaizuna, edo zerk lotu zaitu aizkorara?

Nik uste dut esandako hori dela, etxetik jaso dudanez zerbait izateak baduela bere garrantzia, familian beti aizkora mundua oso hurbilekoa izan dela, eta horregatik, nahiko

modu naturalean atera dela. Ikusi eta bizi izan dudanez horrek guztiak lotu nau aizkorara, batik bat.

Nola prestatzen dituzu txapelketak eta nolakoak izaten dira entrena-menduak?

Asteaz bizpahiru entrenamendu egiten ditut aizkoran, eta gainontzeko egunetan mendian ibiltzera ateratzen naiz, edo lasterka egitera. Aizkora txapelketa garaian, serie-entrenamenduak ere egiten ditut, prestaketa luzeagoak izaten dira horiek.

Eta, aizkora ikasketekin uztartu behar, ezta?

Bai, bai, ikasten ari naiz eta bi gauzak aurrera eramaten nahikoa lan badut orain!

Urte oparoa ari da izaten zuretzat, zeintzuk dira aurrera begirako erronkak?

“ Nafarroako bigarren mailako txapelketan emaitza politak lortu nahi nituzke, hori da orain helburua ”

Tira, ba orain Nafarroako bigarren mailako txapelketan parte hartzeko aukera izango dudanez, nahi nuke bertan emaitza politak lortzea. Eta, bestetik, aurtun bezala, hurrengo urtean ere gazteen txapelketan joatzeko aukera izanen dut, 18 urtez azpikoentzako baita, beraz, horretarako prestaketekin ere buru belarri jarri beharko naiz.

Balmasedan, eskualdeko bi ordezkari podiumean

Anueko aizkolariaz gain, Atezo ordezkaria ere izan zen Euskadiko Aizkolaria Gazteen Txapelketan: Beuntzako Markel Iturralde. Hirugarren postua eskuratu zuen gainera Atezo aizkolaria gazteak, podiumera igoz Senosiainekin batera. Hauek izan ziren Balmasedako txapelketako emaitzak:

- Beñat Senosiain: 13:55
- Jon Zaldua: 15:34
- Markel Iturralde: 18:29
- Unai Valverde: 19:41
- Jakes Iruretagoiena: 21:53



Senosiain txapeldun, eta hirugarren postuan Iturralde ateztarra



‘Valles-Ibarrak’ garapen agentzia berria, Ultzama Atetz eta Odieta

Cederna Garalur Nafarroako iparraldean garapen ekonomikoa eta tokiko ekintzailatza sustatzen duen elkarte da. Bere helburua argia da: tokiko ekonomia indartu eta lan aukerak sortzea. Mendialdeko eskualdeko agentziak Basaburua eta Imotz barnebiltzen ditu, eta sortu berri den ‘Valles-Ibarrak’ agentziak, berriz, Ultzama, Atetz eta Odieta

Ekintzaileei aholkularitza pertsonalizatua eta doakoa eskaintzen die agentziak, bai negozio-ideia berriak dituztenei, bai dagoeneko martxan dauden autonomo eta enpresei. Zerbitzu nagusiak hauek dira: bidera-

garritasun planak egiten laguntzea, diru-laguntzei eta forma juridikoei buruzko informazioa erraztea, formakuntzak antolatzea eta negozioaren erreleboa prestatzea, besteak beste.

Nafarroa Ekintzaile Sarea

Cederna Garalurrek Nafarroa Ekintzaile Sarea osatzen du beste erakunde batzuekin batera, hala nola CEIN, Nafar Lansarea eta Na-



cederna garalur

GARAPEN AGENTZIAK


Mendialdean
eta
Valles-Ibarrak eskualdean

**Mendialdea**

Ainhoa Oribe
617 609 328
mendialdea@cederna.es

**Valles-Ibarrak**

Gustavo Ortiz de Barrón
647 890 591
valles-ibararak@cederna.es





farroako Merkataritza Ganbara. Sare horren erreferentzia nagusia da Navarra Emprende webgunea, ekintzaileentzako informazio eta baliabide garrantzitsuak biltzen dituen: diru-laguntzen eta laguntza-programen informazioa, ekintzaileentzako gida praktikoak, formazio-jarduerak, eta martxan jarri diren ekintzaileen testigantzak, besteak beste.

Non eta nola eskatu laguntza?

Cederna Garalurren berrikuntza garrantzitsu bat dago: Valles-Ibarrak eskualderako zerbitzua sortu da. Horren ondorioz, gure zonaldea bi garapen agentzian banatuta dago gaur egun:

- Valles-Ibarrak eskualdea: Ultzama, Atetz eta Odieta barne hartzen ditu.
- Mendialdea eskualdea: Basaburua eta Imotz barne hartzen ditu.
- Ondorengo mapan banaketa hori ikus daiteke.



cederna garalur

Ekintzailea bazara...

Gogoratu: negozio-ideia bat garatu nahi baduzu edo dagoeneko martxan duzun negozioari bultzada eman nahi badiozu, jarri harremanetan Cederna Garalurrekin. Zure eskualdeko garapen agentzia prest dago laguntzeko.

MENDIALDEA (Basaburua eta Imotz)

Ainhua Oribe

Tel. 617 609 328

Emaila:

mendialdea@cederna.es

Arreta gunek:

Lekunberrin (astelehenetik asteazkenera) eta Leitza.

VALLES-IBARRAK (Atetz, Odieta eta Ultzama)

Gustavo Ortiz de Barrón

Tel. 647890591

Emaila:

valles-ibarrak@cederna.es

Arreta gunek:

Ultzaman (asteazkenetan), Etxaurin eta Esteribarren.

Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak, Aurr! 4 urte, azaroaren 28an





Patxi Irurzun: “Ez horregatik bakarrik, baina lotsatia izateagatik idazten dudala pentsatzen dut. Hori ere eskertu behar diot lotsari”

Hilero Ultzamako Liburutegitik egiten digun kolaborazioa ekartzen dugu orri hauetara. Gaur, ordea, Patxi Irurzun bera izanen da gure elkarrizketatua. Lotsari buruz, bereziki berak sentitzen duenaren inguruan, hitz egiteko *Lacha* saiakera argitaratu berri du Alkibla argitaletxe nafarraren eskutik. Lana fotografiez lagundu du, Ferdinando Scianna Siziliako argazkilariarenak

Alkibla argitaletxeko *Emergencias* bilduman argitaratu da *Lacha*. Haien kontraesanei eta barne eztabaidei buruz idazteko eskatu zieten egileei Carolina Martinez eta Clemente Bernad editoreek. Lotsari buruz idazteko ideia buruan zuen Patxi Irurzunek eta Diego Vasallo musikariak eman zion bultzada: “Poema batean “lotsatiaren zuhurtziak bizitza gelditzen du” irakurri nion eta beste bertso batean lotsatiaren ausardiaz ere hitz egiten zuen. Oso identifikatua sentitu nintzen. Beranduago, beste arrazoi batzuegatik elkarrizketa bat egin nion eta bukaeran lotsari buruz hitz egin genuen. Hor liburua idazteko gako guztiak eman zizkidala uste dut. Hori izan zen liburu honen hasiera”.

Saiakera bat da.

Egia esanda ez nuke jakinen nola definitu, elkarrizketak eta pasarte autobiografikoak nahasten baititut. Alde batetik lotsarekin lotutako esperientzia propioak kontatzen ditut, nireak; eta, bestetik, psikologo batekin, musikariekin eta beste lotsati batzuekin hitz egindakoak. Gainera, lotsati ospetsuen pasadizoak ere agertzen dira (Agatha Cristie edo ACDCko gitarra jotzailearenak, adibidez). Baina saiakera bat dela esan daiteke, bai, behintzat ez da fikziozkoa. Dena den, azpimarratu nahi dut, saiakera hitza entzuten dugunean zerbait oso serioa edo oso aspergarria dela pentsatzen dugula, baina *Lacha*, nire ustez, nahiko atsegina eta dibertigarria da.

Mila aldiz kontatu duzu, baina tira, gure irakurleek ere azalpena behar dute. Nondik sortu zitzaizun *Lacha* idazteko beharra, lotsaz idazteko beharra?

Ni oso lotsatia naiz eta izan naiz beti, txikitatik, eta horrek baldintzatu du nire bizitzan egin dudana guztia, eta, batez ere, egin ez dudana: pasatzen utzi ditudan aukerak, harremanak... eta horrek sufrimendu handia eragin dit eta oraindik ere eragiten dit. Pertsona gehienek sentitzen dute lotsa uneren batean, baina gure kasuan denbora guztian gertatzen zaigu eta zama bat da. Horri buruz idatzi nahi nuen eta, agian, zama hori kendu.

Lotsatiek beti dugu hotza, da saiakeraren azpiztitulua. Lotsak eragin dezakeen sufrimenduaren metafora bat da?

Deigarria eta poetiko samarra iruditzen zitzaidan baina badu liburuko kapitulu batekin zerikusia ere. Badira lotsaren adierazpen fisikoak: aurpegia gorritzen zaizu, ahotsak dardara egiten dizu eta izerditzen duzu, adibidez. Ni gaztetan asko izerditzen nuen, lotsarengatik, eta, horregatik, arropa bustia izaten nuen. Baita neguan ere, eta horrek, noski, hotza handia eragiten zidan. Baina, bai, esanahia metaforikoa ere badu. Lotsatiok, gainera, izaera hotza izaten dugu, edo,



Patxi Irurzun ▲



hobeki esanda, horrela dela ematen du, barrutik bor-bor gauden arren.

Zuk zertan sufritu duzu gehien, lotsarengatik?

Gauza askotan eta oso sinpleetan, beste pertsonendako normalak diren gauzetan. Adibidez, tabernako barran eskatzera joaterakoan zerbitzariarekin nola hitz egin behar dudanez pentsatzen hasten naiz: “kafe bat, mesedez?” edo “jarriko didazu kafesne bat, mesedez?” esanen diodan. Lotsatiok bizitza bi aldiz bizi ohi dugu: egiten duguna aurretik pentsatzen dugunean eta gertatzen denean. Liburuarekin konturatu naiz hiru aldiz ere bizi dugula, gertatu ondoren, errepasatzen dugulako: “zergatik esan dut hori horrela?”, edo, “zergatik ez dut hori beste modu honetan esan?”. Gauza txikiak dira baina horrek guztiak *via crucis* txiki batean bihurtzen du zure egunerokoa.

100 pezeta galtzeak ere ekarri zizun...

Bai (irriak). Lehenengo kapituluaren kontatzen dudanez pasadizoa da. Txikitik amak 100 pezeta eskaini zizkidan ogia erostera joateren truke -eta garai hartan, ume batentzat, diru asko zen-. Azkenean ez nintzen gai izan. Gero, denborarekin, gauza batzuk gaitzitzen joaten zara, eta, gainera, ni idazlea naizen aldetik, askotan tokatu izan zait jendearen aurrean hitz egitea edo elkarrizketak egitea, eta ikasten zoaz. Denboraren eta eskarmentuaren poderioz hori zure nortasunaren parte dela onartzen duzu eta horrekin bizitzen ikasten duzu.

Eta saiakeran umorez kontatzen dituzu pasadizoak. Lotsari umorez egiten diozu aurre?

Bai. Gainera, askotan, lotsatiok egiten ditugun gauzak nahiko komikoak izaten dira, ezta? (irriak). Jende traketza izan ohi gara. Ni beti akordatzeko naiz Peter Sellersen *El Guateque* filmeaz. Norberari irri egiten ikasi behar da, pisu hori kentzeko. Tresna edo mekanismo bat da. Eta, jakina, nire lite-

raturan umorea oso presente dago beti, eta hemen ere bai.

Esan dugu, lotsak sufrimendua eragiten duela; gauza batzuk ez egitea ekartzen duela. Baina zuk aldarrikatu ere, aldarrikatzen duzu.

Liburuan psikologo kliniko batekin hitz egindakoa ere agertzen da, Jose Luis Eslabarekin. Eta elkarrizketa horrek dezente lasaitu ninduen. Berak dio ez dela ezaugarri negatibo bat fobia sozialean bihurtzen ez bada, behintzat. Lotsa sufritzen duenarentako ez da atsegina, esan dudanez bezala, asko mugatzen zaituelako, zure buruan hesiak jartzen dituzulako eta gauza asko egiteari uzten diozulako. Baina, beste aldetik, alde positibo bat ere badu, adibidez, lotsatiok samurtasuna eragiten dugu, hori atsegin ohi du jendeak eta lotsatiok horretaz baliatzen gara. Zentzu horretan aldarrikatzen dut lotsa (irriak).

Eta esan duzu urteekin onartzen joan zarela. Lotsarekin adiskidetu al zara?

Bai. Diego Vasallori egindako elka-

rrizketan oso esaldi polita agertzen da eta liburuaren leloa dela esango nuke. Norberak bere herabetasuna (*timidez*) onartzen du lotsa sentitzeak lotsa ematen ez dionean. Orain, momentu honetan, horrela sentitzen naiz, gutxi gorabehera. Nire izaera onartu dut. Bestalde, literatura oso gauza inportantea da nire bizitzan eta pentsatzen dut lotsatia izateagatik idazten dudala. Ez bakarrik horregatik, baina horrek garrantzi handia du. Orduan, hori ere eskertu behar diot lotsari.

Lacha da izenburua, Iruñerrian erderaz erabiltzen den hitza, baina lotsa hitzaren oso antzekoa da. Euskaratik al dator?

Niretzat oso hitz arrunta izan da beti. Gaztelaraz hitz egiterakoan Iruñerrian oso ohikoa da. Nafarroa osoan zela uste nuen nik baina Cortesera joan nintzen liburu bat aurkeztera eta ez zuten hitza ezagutzen. Teorian, caló hizkuntzatik dator, ijitoen hizkuntzatik. Hori da behintzat RAEren hiztegiak dioena. Baina Iruñerrian bakarrik erabiltzen denez, nik pentsatzen dut agian nahasketaren ondorio izan dela edo euskarak kutsatua. Hala ere, hori teoria pertsonal bat da eta ez du oinarri zientifiko edo filologikorik ere.

Artista askok esaten dute lotsatiak direla. Eta zuk batzuenak bildu dituzu hemen, tartean, adibidez, gure laguna eta auzokidea den Iñigo Ibarrenarenak.

Bai, liburuan esaten dudanez bezala lotsatiok radar bat dugu, gure artean elkar ezagutarazten gaituena. Ezagutzen ditudan beste lotsati batzuekin hitz egin dut, besteak beste, Iñigo Ibarrenarekin, edo Gorka Armendariz Leihotikan taldeko abeslariarekin. Kasu horietan oholtzara igotzera ohituta dagoen jendeak lotsa nola gaitzitzen duen ematen zidan atentzioa -bertsoak kantatzera, Iñigoren kasuan-, eta nola agertokia lotsa hori konpentsatzeko edo gaitzitzeko modu bat den, eta horri buruz, besteak beste, hitz egin dut haiekin.

**Aurkezpena Iruñean,
Txalapartan,
abenduen 13an.
12:00etan**



Patxi Irurzun Eslobenian. *Atrapados en el paraíso* bere lehenengo liburu bat eslobenierara itzuli berri dute



2025eko urrian gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

Urrian ez dugu sortzerik izan.

Ezkontzak:

Guk dakigula ezkontzarik ez da izan.

Heriotzak:

BASABURUA Orokietia-Ola

Boni Noain Irañeta, **Olaetxeko** etxekoan-
drea, urriaren 31n hil zen 80 urtetan.

“ Beti izanen
zaitugu
gogoan ”



▲ Boni Noain

Romualda Goñi Beuntza, etxalekuarra, 102 urtetara doa

Urte hasieran Etxalekun Ageda Erbiti Aldaregiaren ehungarren urtebetetzea ospatu genuen, **Zapatiñe-
nean**. Herriak opari bat egin zion eta jende multzoa zoriontzera etxera joan zitzaion.

Ez nuen askorik espero inor zaharragorik izanen zenik Imotz eta Basaburua guzian, baina ez dira gauzak horrela, bi pausutara nuen zaharragoa. Eta hara nola diren kontuak: **Zapatiñenearekin** muga egiten duen etxean, **Etxandia** deituan, genuen zaharragoa zen emakume bat: Romualda Goñi Beuntza, Ageda jaio aurreko urtean sortua. Bai, orain ez da Etxalekun bizi, baina, dena dela, etxalekuarra dugu.

Romualda, Juan Esteban Goñi Aldaregia eta Bonifacia Beuntza Oiartzunen alaba dugu, zazpi senideen artean seigarrena, 1924ko otsailaren 7an jaioa. Aita etxalekuarra, **Etxandikoa** eta ama gartzarondarra, **Joandartzenekoa**.

Aitatxi eta amatxik: aitaren aldekoak, Martin Antonio Goñi eta Josefa Aldaregia, biak etxalekuarrak. Eta amaren aldekoak, Isidro Beuntza eta Martina Oiarzun, lehena Gartzarongoa eta bigarrena Auzakoa, Gartzaronen bizi zirenak.

Jose Angel Urritzak, Etxalekuko semea eta bertako parrokoa zenak, hau izan zuen azken bataioa, handik

laster hil baitzen, apirilaren 1ean hain zuzen 64 urtetan.

Hemeretzi urtetan ezkondu zitzaigun Romualda, Basilio Goñi Sengaraiz zubiriarrarekin, 1943ko ekainaren 28an. Ezkontza Iruñeko San Saturnino elizan izan zen. Ez zuten umerik izan.

Geroztik Iruñean bizi izan da, nahiz Basilio, erretiratu-takoan, **Etxandia** berritu eta gure artean izan genuen urte sail batez, uda eta neguko oporretan.

Romik osasun ona eta burua argia baino argiagoa du! Fotografia ateratzera joan nintzaionean jolasean aritu ginen eta dena du buruan, lehengo eta oraingoa. Hori egin zitzaidan harrigarriena, oraina bizi duela.

Romi, gure aldizkari honetatik zorionak eta har ezazu besarkada bat etxalekuarren partetik. Romualda, eutsi, eta izan ongi!





Ametzaren txokoa

Urteak ihes egin digun honetan, Ametza Kultur Elkartetik atzerabegirakoa egiteko aprobetxatuko dugu tarte hau. 2025 honetan hainbat ekimen egin ditugu, batzuk barrura begirakoak eta beste zenbait kanpora begira antolatu ditugunak:

- Pulunpe Batzordeko hileroko batzarrak egin ditugu
- Zuzendaritzako bilerak egin ditugu
- Kolaboratzaileekin elkartu gara
- Ultzamaldeko Gazteen I. Podcast Lehiaketa antolatu dugu azaroan, Esan Erran irratiarekin eta eskualdeko Euskara Mankomunitatearekin elkarlanean
- Zozketa Mundiala antolatu dugu, ilbeltzaren 4an egingen duguna
- Eskulangileen Azoka egin dugu abenduaren 7an

Beti bezala, ekimen horiek aurrera eramateko bazkide eta herritar askok eman diguzuen laguntza eskertu nahi dizuegu, eta bestetik, hurrengo urterako gonbidapena ere luzatu: ateak zabalik dituzue, eta zuen ekarpena eta babesa beharrezkoak izanen ditugu aurrerantzean ere.



pulunpe

amezti

Esan Erran Irratia
107.9 FM

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



2025eko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda
Lista de premios



x3

Asteburuko bidaiak 2
lagunentzat

Estancias de fines de
semana para 2 personas



x3

Elgorriagako bainu etxean
asteburuko egonaldiak

Estancia de fin de semana en
el Balneario de Elgorriaga



x2

Landetxetan
egonaldiak

Estancias en
Casas Rurales



x 20

Bazkari edo afari bikoitz
(inguruko ostatuetan)

Comidas o cenas para dos
(en las posadas locales)



x10

Txerri gizen

Cerdos gordos



x10

Axuri eder

Hermosos corderos

8 Esneki sorta / 8 packs lácteos

30 Saskitto / 30 Saskitto

25 gazta / 25 quesos

Eta... beste anitz sari / y... un montón de regalos más